

NORA DOA UPV/EHU?

Herrialde baten garrantzia zientzian eta teknologian ezagutza berria sortzeko ahalmenaren arabera neurtzen da. Eta ezagutza berriak sortzeko gunerik garrantzitsuenetarikoa, gaur egun, unibertsitateak dira. Zenbat eta unibertsitate indartsuagoak eta berritzaileagoak izan, orduan eta handiagoa da produktio zientifikoa eta are nabarmenagoa garapen teknologikoa; eta, ondorioz, zientziak gehiago eragiten du bizi-kalitatea hobetzen duten eta gizartearen aldaketa eragiten duten teknologia eta produktu berrien sorreran. Esanak esan, unibertsitateen kalitateak eragin izugarria du herrialdeen ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-prozesuetan, eta, azken batean, herritarren bizimoduan.

Hau guztia esanda, burura etortzen zaizkidan galderak dira: zein egoeratan dago UPV/EHU? Nola dago prestatuta euskal gizarteak dituen beharrizan berriei erantzuteko? eta ezagutzaren gizarteak bultzatzen dituen aldaketei aurre egiteko?

1. UPV/EHUko ikasleria

UPV/EHUko ikasleriaren bilakaeraren azterketak zera erakusten du: 2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera UPV/EHU-ko ikasle kopurua % 13,7 txikitu dela (Ikus 1. taula).

1. taula. UPV/EHUko IKASLEAK (2001-2002 / 2006-2007)

2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007
51.749	50.396	49.336	48.357	46.457	44.653

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Estatistika Zerbitzua

Nolanahi ere, egia da pixkanaka hazten doala ikasketak egitera UPV/EHU-ra datozen ikasle atzerritarren kopurua. Unibertsitatera egonaldi baterako datozen Latinoamerikako ikasleen kopurua, zein gradu, master eta doktorego ikasketetan matrikulatutako ikasle atzerritarren kopurua handitzen ari da urterik urtera (ikus 2. taula). Hori horrela da Unibertsitateak Europako Batzordearen ALFA (América Latina Formación Académica) eta ALBAN programetan parte hartzen duelako. Programa horiek Latinoamerikako eta Europako goimailako irakaskuntzako erakundeen arteko lankidetzak sustatzea dute helburu. Gainera, UPV/EHU-k Latinoamerikako unibertsitateekin graduko eta graduondoko ikasleak eta irakasleak trukatzeko programa bultzatu du, UPV/EHU-AL programa izenekoa.

2. taula. UPV/EHUko IKASLE ATZERRITARRAK (2004-2005 / 2006-2007)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
	-	-	-	-	-	-
	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Unibertsitatera egonaldi baterako datozen Latinoamerikako ikasleak	---	---	---	---	10	16
Masterretan matrikulatutako ikasle atzerritarrak	---	---	---	---	---	43
Doktoregoetan matrikulatutako ikasle atzerritarrak	299	385	316	316	347	398
Graduko ikasketak egitera Unibertsitatera datozen ikasle atzerritarrak	---	---	---	453	503	436

Iturria: UPV/EHU.

2. UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak

Irakasle eta ikertzaileen bilakaerari dagokionez, 2001-2002 ikasturteaz geroztik Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile kopurua % 14,4 hazi da (ikus 3. taula). Gehiengoa, gainera, doktorea zen.

3. taula. UPV/EHUko IRAKASLEAK (2001-2002 / 2006-2007)

2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007 (2006ko uztailearen 31n)
3.763	3.854	3.948	4.069	4.212	4.305

Iturria: Euskal Herriko Unibertsitatea zenbakitan, 2005-2006 (www.ehu.es)

2006ko abenduaren 31n irakasleak eta ikertzaileak 4.230 ziren eta, horietatik, doktoreak 2.558 (% 60,5). Doktoreen ehunekoari dagokionez, beraz, Euskal Herriko Unibertsitatea egoera onean dago ezagutzaren gizarteak bultzatzen dituen aldaketeki aurre egiteko.

Datuek erakusten dutenaren arabera, UPV/EHUⁿ dauden ikasleen kopurua % 13,7 txikiagotu da 2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera. Aldiz, irakasleen kopurua % 14,4 hazi da denboraldi berean. Bestalde, aipatzekoa da ikasleak/lanaldi osoko irakasle ratioa murrizten joan dela 2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera; hala, egun, ratioa 12 ikasle ingurukoa da irakasleko¹⁶.

CRUEren datuekin bat etorritz¹⁷, Euskal Herriko Unibertsitateak Estatuko unibertsitate publiko guztietatik laugarren emai-

¹⁶ Finlandiako hezkuntza-eredua nazioarteko ebaluazioetako lehena da. Bertan, graduko eta masterreko ikasketetan irakasle bakoitzeko dagoen ikasle-kopurua 17,4koa da (Ministry of Education publications 2007:19: Universities 2006. Annual Report).

¹⁷ Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia (CRUE): *La universidad en cifras, 2006. Información académica, productiva y financiera de las universidades españolas. 2004. Indicadores universitarios*. Curso académico 2004-05. Madril. 2006.

tzarik onena du ikaslea/lanaldi osoko irakasle ratioari dagokioenez; aurretik, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Zaragozako eta Kantabriako ditu. Ratio hori nahikoa urrun dago Estatuko unibertsitate publikoek, oro har, duten batez besteko ratiotik (15,99 2004-2005 ikasturtean).

UPV/EHUn ikaslea/irakasle ratioa Estatuko beste unibertsitate publiko batzuetakoa baino txikiagoa izatea azaltzen duen arrazoi nagusia da azken urteotan hazi egin dela Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle elebidunen kopurua. 1988an, 370 irakasle elebidun zeuden UPV/EHUn, 1999an, 764 eta 2005ean, 1.173¹⁸. Bestela esanda, ikasketak euskaraz egin ahal izateko azken urteotan izan den eskaerari erantzute aldera, sortutako irakasle-postu gehienak elebidunak izan dira.

Nolanahi ere, ikaslea/lanaldi osoko irakasle ratioa txikia dela kontuan hartzen badugu, eta, horrekin batera, datozen urteetan ikasle kopurua murrizten joango dela eta 2006-2007 ikasturtean irakasle eta ikertzaileen kopurua igotzen (% 7,6 gehiago, 2005-2006 ikasturtearekin alderatuta), badirudi epe labur eta ertainean Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle plantilla ez dela asko haziko. Zentzu honetan, aipagarria da 2007ko urriaren 25ean Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak Irakasle eta Ikertzaileen Plan Gidaria onetsi zuela. Dokumentu horretan esaten da Euskal Herriko Unibertsitateko egungo plantilla nahikoa dela. Hala eta guztiz ere, dokumentuak dio zenbait sailetan irakasleak falta direla eta beste batzuetan, berriz, gehiegi daudela. Gainera, zenbait alorretan irakasle elebidunak falta dira¹⁹. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da plantilla orekatuko duten irakasle-politikak sustatzea; sobran dauden sail eta fakultateetatik irakasleak kenduz eta faltan dauden tokietan jarriz.

¹⁸ www.euskera-errektoreordetza.ehu.es

¹⁹ Urritasun horiek, funtsean, ingeniartzaren eremuan antzeman daitezke. Bertan, tituludunak arin laneratzen direnez, are zailagoa da irakasleak eta ikertzaileak izango direnak erakartzea.

3. Administrazio eta zerbitzuetako langileak (AZL)

4. taulak erakusten duen bezala, 2006-2007 ikasturtean, Administrazio eta Zerbitzuetako 1.319 Langile (AZL) zeuden UPV/EHUn, hau da, 2001-2002 ikasturtean baino 175 langile berri gehiago eta, ehunekoetan, % 15,3 gehiago.

4. taula. UPV/EHUko AZL-en KOPURUAREN BILAKAERA (2004-2005etik 2006-2007ra)

2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007
1.144	1.146	1.164	1.297	1.298	1.319

Iturria: UPV/EHU. Abenduaren 31ra arteko datuak.

AZL/irakasle ratioa unibertsitate batek bere eginkizunak (irakaskuntza, ikerketa, zerbitzu eta abarrei lotutakoak) ahalik eta ongien betetzeko giza eta administrazio-baliabideen ikuspegitik duen laguntza logistikoaren adierazle gisa erabiltzen da. UPV/EHUn kasuan, AZL/lanaldi osoko irakasle ratioa 0,31 ingurukoa zen 2006-2007 ikasturtean. Gainera, CRUEren datuen arabera, Euskal Herriko Unibertsitatearen AZL/lanaldi osoko irakasle ratioa unibertsitate publiko guztiek duten batez besteko ratioaren (0,51) azpitik dago. Zentzu honetan, AZLei dagonkionez, Euskal Herriko Unibertsitatea nahiko egoera ahulean dago ezagutzaren gizarteak eskatzen dituen aldaketei aurre egiteko. Ondorioz, beharrezkoa da AZL-koen kopurua handitzea.

4. Ikerketa UPV/EHUn

Datuek erakusten dutenaren arabera (Ikus 5. taula), enpresa-munduan lanean edo enpresetarako proiektuak egiten ari diren UPV/EHU-ko ikertzaileen kopurua txikiagotu egin da 2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera bitartean. Gainera, kontuan izan behar da sektore produktibora oso ezagutza gutxi transferitzen dela unibertsitate publikotik. Ikerketa-talde gutxi dituzte harremanak enpresekin, eta unibertsitatearen, ikerketa-zentroen, zentro teknologikoen eta enpresen artean nahi litzatekeena baino harreman txikiagoa dago.

Bestalde, ezagutzaren arlo jakin batzuetan kultura ikertzaile-rik ez dagoela ikus daiteke, bereziki unibertsitate-eskoletako langileen artean. Hori bi fenomenoren ondorioa da: batetik, unibertsitate-eskoletako irakasle titularrek, unibertsitatean jarraitu ahal izan dezaten, ez dute doktore-titulua izan behar eta, beraz, ez dute zertan ikerketa egin behar (nahiz eta batzuek egiten duten). Eta, bestetik, aurreko hamarkadan irakasle-beharrizan handiak izan ziren eta, horien ondorioz, kasu askotan, ezin izan dira doktoreak diren irakasleak hautatu. Horrekin batera, kontuan izan behar da gizarte eta giza zientzien arloetan behar litzatekeen baino ikerketa gutxiago egiten dela. Gainera, ezagutza arlo horietan internazionalizazio-maila oso txikia da eta, bestetik, ez dago ikerketa-talde egonkorrik sortzeko tradizioirik.

Gabezia horien guztien eraginez, 1989-2005 aldian, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle numerarioen % 54k ez zuten CNEAI-k (Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionala) ematen duen seiurtekorik. Estatuko unibertsitate publikoetan halako egoeraren zeudenen batez bestekoa % 42koa zen. Bestela esanda, Euskal Herriko Unibertsitatearen egoera gainerako unibertsitate publikoena baino askoz ere kaskarragoa zen ikerketari dagokienez²⁰.

Egia esan, UPV/EHUko irakasleen kultura ikertzailea ahulegia da, eta hori oztupo garrantzitsua da Europako beste talde batzuekin lehiatzeko. Gainera, belaunaldi arteko ordezkatzeara ere ez dago behar bezala ziurtatuta. Ikerketa-talde askok ez du ez berrikuntzarik egin ez ikertzaile berriak hartu denbora luze-egian. Hori horrela da irakasle eta ikertzaile berriak irakasle-lanetan aritzeko jendea behar denean bakarrik hartzen direlako. Bestalde, ikerketa-jarduera eta produkzioa handiagoa den arloetan (zientzietan, adibidez) irakasle-beharrizanak nabarmen murriztu dira. Bi faktore horien ondorioz, ikertzaile gazte gutxi sartu da unibertsitatean azken urteotan.

6 eta 10 urte bitartean behar dira ikertzaile bat prestatzeko. Kontuan izanik UPV/EHUko plantillaren batez besteko adina

²⁰ Memoria sobre la situación del profesorado numerario con respecto a los sexenios de investigación. 2005. urtea. CNEAI, www.mec.es.

50 urte ingurukoa dela, pixkanaka gazte ikertzaileak unibertsitatean ez sartzeak arrisku larrian jartzen du egungo ikerketamailari eusteko behar den belaualdi arteko ordezkatzeara. Ikuspuntu honetatik, UPV/EHU nahiko ahul dago ezagutzaren gizartearen eskakizunei erantzuteko.

Aurrekoari lotuta, aipagarria da ikerketa-taldeak txikiegiak direla eta, kasu gehienetan, ez direla nahikoak nazioarteko zenbait testuingurutan eta, bereziki, Europako eremuan lehiakorak izateko. Hori dela-eta, talde gutxik jotzen dute, baliabide bila, Europako edo Estatuko deialdietara. Hori da, neurri batean, erregistratutako patente-kopuruan aldaketa nabarmenik gertatu ez izatearen arrazoia (ikus 5. taula).

Amaitzeko, 2001-2002 ikasturteetik 2006-2007 ikastertera irakurritako tesien kopuruak behera egin duela ikus daiteke. Horrek doktore-kopuruan eragiten du, baita unibertsitatean garatzen den ikerketa-lanean ere. Lehen esan dugun moduan, egun Euskal Herriko Unibertsitateko plantilla osatzen duten lanaldi osoan diharduten pertsona askori, nola unibertsitate-eskolako irakasle titular izanik hala kontratatutako irakasle izanik (elkartua hala laguntzailea), ez zaie doktore izatea eskatu.

5. taula. IKERKETAN UPV/EHUn (2001-2002tik 2006-2007ra)						
	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007
Ikerketa-jardueretan parte hartzen ari diren irakasleak eta ikertzaileak	1.200	1.300	1.370	1.439	1.646	1.950
Prestatzen ari diren ikertzaileak eta ikertzaile doktoreak	48	45	43	47	35	66
ISIren zerrendan argitaratutako artikuluak	742	670	777	817	869	1030
Norbere titulartasunarekin erregistratutako patenteak	5	3	7	10	14	22
Irakurritako tesiak	228	202	234	217	251	229
Ikerketa-kontratuen zenbatekoa	5,4M€	7,5M€	9M€	10M€	10M€	13,2M€
Enpresa-munduan lanean diharduten edo enpresetarako proiektuak egiten ari diren ikertzaileak	435	465	490	514	538	433

Iturria: UPV/EHU

5. Euskararen bilakaera UPV/EHUn

Ezagutzaren gizartera egokitze prozesua erraztasunez egiteko, unibertsitateek oso kontuan izan behar dituzte inguruko errealtate sozial, kultural eta ekonomikoak. Gure kasuan, UPV/EHU-k Euskal Herriko berezitasun linguistiko, kultural eta sozioekonomikoak hartu beharko ditu kontuan. Alegia, UPV/EHU nazioartera zabaldu behar da, AZLen kopurua handitu behar du eta iker-tzaile gazteak erakarri, baina euskararen inguruan azken urteotan eman diren aurrerapausoetan atzera egin gabe.

6. taulan ikus daitekeen bezala, unibertsitate publikoan eskaini ziren kreditu guztien % 43 euskaraz eskaini ziren 2000-2001 ikasturtean eta % 49, aldiz, 2006-2007 ikasturtean.

6. taula. UPV/EHUn ESKAINITAKO KREDITUAK (gaztelania / euskara) (2000-2001 / 2006-2007)														
	2000-2001		2001-2002		2002-2003		2003-2004		2004-2005		2005-2006		2006-2007	
	Kredi tuak	%	Kredi tuak	%	Kred ituak	%	Kredi tuak	%	Kredi tuak	%	Kredi tuak	%	Kredi tuak	%
Euska ra	16.77 4	43	17.7 82	4	19.1 06	4	18.4 77	4	18.7 55	7	19.52 7	4	19.9 99	4
Gazte lania	22.07 9	57	22.9 45	5	23.9 25	5	22.3 07	5	21.5 26	3	21.63 9	5	20.4 59	5
GUZ TIRA	38.8 53	1 0	40.7 27	1 0	43.0 31	1 0	40.7 84	1 0	40.2 81	1 0	41.1 0	1 0	40.4 58	1 0

Inolako zalantzarik gabe, euskarak gero eta presentzia handiagoa du EHuko ikasgeletan. 7. taulan ikus daitekeen bezala, gora doa euskarazko kreditu ardatzen eta nahitaezkoen kopurua, baita euskarazko eskuliburu eta liburuen produkzioa eta itzulpena eta lanaldi osoko irakasle eta ikertzaile elebidunen ehuneko ere. Atzera pauso bakarra irakasle eta ikertzaileei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzarako ikastaro-kopuruan ikusten da.

7. taula. EUSKARAK UPV/EHUn BIZI DUEN EGOERARI BURUZKO DATUAK						
	2001- 2002	2002- 2003	2003- 2004	2004 - 2005	2005- 2006	2006- 2007
Irakasle eta ikertzaileei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzarako ikastaroak	12	11	8	8	11	9
Euskarazko kreditu ardatzak eta nahitaezkoak	11.887	12.703	12.760	13.146	13.327	14.185
Eskolarako materialak euskaraz prestatzeko laguntzak	-	19	22	30	37	41
Euskaratu diren unibertsitateko eskuliburuak	7	5	3	6	7	10
Lanaldi osoko irakasle eta ikertzaile elebidunak (%)	% 31,2	% 32,4	% 33,3	% 33,7	% 33,6	% 35,2

Iturria: UPV/EHU.

Datuek argi erakusten duten bezala, euskararen egoerak hobera egin du Euskal Herriko Unibertsitatean. Hala ere, unibertsitateko ikasketak euskaraz egitea eskatzen dutenen kopurua etengabe gehitzen doala ikusita, beharrezkoa da azken urteotan izandako aurrerapenak finkatuko dituen politikarekin jarraitzea, baita euskaraz ikasteko aukera gehiago ematen jarraitzea ere.

8. taulari jarraiki, D ereduan (euskarazko irakaskuntza) matrikulatu diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikasleak 1997-1998 ikasurtean % 34,97 izatetik 2006-2007 ikasurtean % 50,46 izatera igaro dira.

8. taula. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZA ARAUTUKO IKASLEAK, EAEko HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA (1997-1998 / 2006-2007) (%)					
	1997- 1998	2000- 2001	2004- 2005	2005-2006	2006- 2007
A EREDUA	45,96	37,06	31,51	29,13	27,50
B EREDUA	18,22	21,08	21,19	21,57	21,47
D EREDUA	34,97	41,25	46,70	48,75	50,46
X EREDUA	0,84	0,61	0,56	0,55	0,56
IKASLEAK, GUZTIRA	351.527	321.776	329.947	332.761	337.927

Iturria: www.eustat.es

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan D ereduan matrikulatu diren batxilergoko ikasleak 1997-1998 ikasturtean % 34,11 izatetik 2006-2007 ikasturtean % 46,55 izatera igaro dira (ikusi 8. taula).

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskararen Plan Gidariak (2007-2008 / 2011-2012) honakoa aipatzen du: “2006. urtea mugarrria da euskarazko hezkuntza-sistemaren historian: urte horretan, lehen aldiz, ikasle gehiagok egin zituzten Hautaprobak euskaraz gaztelaniaz baino, eta pentsatzekoa da zenbakiak gora egiten jarraituko dutela datozen urteetan”²¹.

Azkenik, gogoan izan behar da Euskal Herriko Unibertsitatean sartzen diren gero eta ikasle gehiagok eskatzen dutela ikasketak euskaraz egin ahal izatea.

9. taula. BATXILERGOA (D EREDUA), HAUTAPROBAK ETA UNIBERTSITATEKO IKASKETAK EUSKARAZ EGITERA ERABAKI DUTEN IKASLE BERRIAK (1997-1998 / 2006-2007) (%)			
IKASTURTEA	Batxilergoa	Hautaprobak	Ikasle berriak
1997-1998	34,11	30,81	23,46
1998-1999	33,53	32,62	26,24
1999-2000	36,45	35,43	27,25
2000-2001	40,09	38,01	30,53
2001-2002	40,70	45,13	36,14
2002-2003	41,87	46,36	35,73
2003-2004	42,59	47,77	37,82
2004-2005	44,35	50,07	39,60
2005-2006	45,93	49,72	39,60
2006-2007	46,55	51,90	43,90

Iturria: UPV/EHUko Euskararen Plan Gidaria (2007-2008 / 2011-2012). www.ehu.es

²¹ UPV/EHUko Euskararen Plan Gidariak (2007-2008 / 2011-2012) dioten bezala (www.ehu.es): “Jakina da Hautaprobak euskaraz egin dituzten ikasle guztiek ez dutela egiten ondoren matrikula UPV/EHUko euskarazko talderen batean. Aldea hamar puntukoa izan ohi da, eta galeraren arrazoiak hainbat dira: ikasleek matrikula Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetan egitea, edo erkidegoko beste unibertsitate batean; ikasketak guztiak euskaraz egin ezin izatea titulazio batzuetan; gaztelaniazko taldea aukeratu duten uni-

6. EHUri buruzko ondorioak

Hasieran, UPV/EHU-k euskal gizarteak dituen beharrizan berriei erantzuteko prestatuta dagoen galdetzen nuen. Egia esan, gozo baino gazi gehiago dagoela ondorioztatu behar da. UPV/EHU ahul dago ikasle eta AZL-ko langileen kopuruari dagokionez, zein egiten den ikerketari dagokionez. Aldiz, ondo dago irakasleen kopuruaren ikuspuntutik, nahiz eta desorekak dauden eta belaunaldien arteko ordezkatzean arazoak egon.

EHUren ikasle kopurua asko murriztu da azken urteotan²², eta hori arazo bat da kalitatezko irakaskuntza eta ikerkuntza bultzatzeko. Izan ere, ikasleak gehiago gutxitzen badira, arazokak egon daitezke kalitatezko graduako eta graduondoko ikasketak bultzatzeko, zein ikerketa talde lehiakorrek sortzeko.

Egia esan, gai honi irtenbide bat aurkitzea zaila da momentu honetan. Izan ere, ikasleak gutxitzearen arrazoi garrantzitsuenetarikoa da unibertsitatean sartzeko adina duten belau-naldiak gero eta txikiagoak direla, hain zuzen ere, azken urteotan jaiotza-tasen beheraka izan dugulako²³. Bestalde, ezin da ahantzi gero eta jende gehiago doala lanbide heziketara. Beraz, ikasleen galera hau orekatzeko, ezinbestekoa da ikasle atzerritarrak erakartzeko politikak bultzatzea. Ahal den neu-

bertsitatera sartu aurreko lagunekin ikasi nahi izatea; eta, baita ere, ikasketak amaitu ondoren lana giro nagusiki erdaldunean egin beharraren eragina”.

²² 2001-2002 ikasturtetik 2006-2007 ikasturtera, ikasle-kopurua % 13,7 murriztu da Euskal Herriko Unibertsitatean, % 37,8 Deustuko Unibertsitatean eta % 2,8 Mondragon Unibertsitatean. 2006-2007 ikasturtean euskal unibertsitate-sistemak 2001-2002 ikasturtean baino 12.153 ikasle gutxiago izan zituen gutzira. Inolako zalantzarik gabe, galera horrek unibertsitate-politikak berbideratzera darama.

²³ EUSTATen datuen arabera, 1985 eta 1995. urteen artean, jaiotze-tasa jaisten joan da. Hain zuzen ere, 1994 eta 1995. urteek dute jaiotze-tasarik baxuena. Jaiotze-tasa 1996. urtean hasi zen errekuiperatzen. Beraz, unibertsitate-ikaske-ten matrikulazioa ez da igoko 18 urte pasatu arte, hau da, 2014. urtetik aurrera hasiko dira igotzen.

rrian master- eta doktorego-kurtsuak bultzatuko dituzten curriculum vitae oneko ikasleak erakarri behar dira, gure ikerketa-ahalmena hobetzen lagunduko duten talentuzko ikasleak. Eta horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateak prestakuntza-eskaintza nazioartera zabaldu, berritu eta hobetu egin behar du.

Irakasleriari dagokionez, datuek erakusten dute UPV/EHU-k nahiko irakasle dituela gizarteak jartzen dizkion erantzukizunei aurre egiteko. Hala ere, argi dago Euskal Herriko Unibertsitateak plantilla orekatuko duten irakasle-politikak sustatu behar dituela, sobran dauden sail eta fakultateetatik irakasleak kenduz eta faltan dauden tokietan jarritz.

Irakasle gehiegi badago ere, ez da gauza bera gertatzen AZ-Lekin. Datuen arabera, UPV/EHU-k AZLen kopuru txikiegia du. Unibertsitate moderno eta kalitatezko batek administrazio eta zerbitzuetako langile kopuru egokia behar du bere eginkizunei ahalik eta ongien erantzuteko, eta horrek eskatzen duena da AZLen kopurua handitzea.

Esanak esan, ikerketa da UPV/EHUren alderdirik ahulena. Eta hori arazo bat da ezagutzaren gizartean posizio egokiak lortzeko. Zentzu honetan, beharrezkoa da ikertzaileen kopurua handitzea. Horren ildotik, eta unibertsitateko irakasle eta iker-tzaileak prestatzeko hainbat urte behar direnez (arestian esan bezala, 6 eta 10 urte artean doktoregoko ikasketak hasten dituenetik), ezinbestekoa da irakasle eta ikerlarien inguruko politika egokiak abian jartzea. Zehazki, beharrezkoa da erretiroak denborarekin aurreikustea eta belaunaldi arteko ordezkatzeari ziurtatuko duten irakasle eta ikerlariak prestatzea. Gauzak ondo egiten badira, ikerketa-jarduera hobetu egingo da eta unibertsitateko giza-baliabideak gaztetu.

Horrekin batera, tesi- eta doktore-kopurua gehitu behar da, baita ISIren zerrendan argitaratutako artikuluen kopurua ere. Ikerketa hedatzea da EHU-ren erronka garrantzitsuenetakoa. Eta horrekin batera, baita enpresarekiko harremanak sakontzea ere. Zentzu honetan, ezinbestekoa da enpresa-munduan lane-

an diharduten edo enpresetarako proiektuak egiten ari diren ikertzaileen kopurua handitzea.

Euskarari dagokionez, pauso asko eman dira EHU-n, baina ez dago zalantzarik gehiago eman behar direla. Kontuan izanik D ereduan matrikulatu diren unibertsitateaz kanpoko irakas-kuntza arautuko ikasleen kopurua (1997-1998 ikasturtean % 34,97 izatetik 2006-2007 ikasturtean % 50,46 izatera igaro dira) zein Autonomia Erkidegoan D ereduan matrikulatu diren batxilergoko ikasleen kopurua handitu egin dela (1997-1998 ikas-turtean % 34,11 izatetik 2006-2007 ikasturtean % 46,55 izatera pasa dira), ez dago zalantzarik beharrezkoa dela ahalegin handiagoa egitea ikasketak euskaraz egin nahi dituztenen eskaera-ri erantzuteko. Euskal gizarteak unibertsitateko euskarazko irakaskuntzen eskaintza handitzea nahi du eta EHU-k eskaera horri erantzun behar dio.

7. Bibliografia

- C.R.U.E (2006): *La universidad en cifras, 2006. Información académica, productiva y financiera de las universidades españolas. 2004. Indicadores universitarios. Curso académico 2004-05.* Madrid.
- CNEAI (2005): *Memoria sobre la situación del profesorado numerario con respecto a los sexenios de investigación.* CNEAI, www.mec.es.
- Eusko Jaurlaritza (2008): *2007-2010eko Unibertsitate Plana. Euskal Unibertsitate-Sistamarako Plana.* Vitoria-Gasteiz.
- Finish Ministry of Education (2007): *Universities 2006. Annual Report, Finland.*

Patxi Juaristi